

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Tuterako Ospitaleko Aho eta Aurpegi-Masailtako Kirurgia Unitateak 300 ebakuntza egin ditu bere lehenbiziko urtean

Egin diren 1.300 kontsulta baino gehiagori esker, gaixoez ez dute zertan Iruñeko NOGra joan behar izan

Astelehena, 2018.eko abenduak 24

Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Aho eta Aurpegi-Masailtako Kirurgia Unitateak tokiko 300 kirurgia ebakuntza egin ditu, tokiko anestesia erabiliz, eta 1.300 kontsulta inguru, bere lehenbiziko urtean. Unitatea duela urtebete sortu zen, ordura arte zerbitzu hori jaso ahal izateko Iruñeko Nafarroako Ospitale Gunera (NOG) joan behar zuten gaixoei arreta eskaintzeko.



Miguel Ángel Bada, profesionala eta Nieves Arregui, erizaina, Aho Kirurgiako gela batean.

Sorturiko eskari zabalaren eraginez, Osasun Departamentuak indartu egin du unitatea. Arreta Miguel Ángel Bada Aho eta Aurpegi-Masailtako Kirurgia profesionalak, Nieves Arregui eta Sonia Ruz erizainek eta José Luis González zeladoreak eskaintzen dute. Une honetatik aurrera, Ane Vila fakultatiboa taldean sartu ondoren, unitateak astelehenetan eta hilean bi asteazkenetan eskainiko du zerbitzua.

2018ko balantzea

2018an zehar, Aho eta Aurpegi-Masailtako Kirurgia Zerbitzuak 548 lehen bisitari eta ondorengo 680 bisitari eman die arreta, eta, besteak beste, hortz ateratzeekin, fibromekin edo hortzoietako tumore txikiekin erlacionatutako ahoko 300 kirurgia ebakuntza egin ditu. "Lehenbiziko urte honen balantzea ezin da positiboagoa izan", azpimarratu du Miguel Ángel Bada. "Gaixoez beraien poza adierazten dute, osasun arazo hori konpontzera Iruñeraino joan behar ez dutelako", adierazi du.